

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUD**DESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE**

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Yolanda Barcinak Iraunkortasunaren Bikaintasun Klubeko enpresekin Nafarroako ekimenak partekatu ditu erantzukizun korporatiboa sustatzeko

Nafarroako Lehendakaria Espainiako hogeita bi konpainia handi biltzen dituen talde horretako ordezkariekin bildu da Madrilen

Jueves, 31 de mayo de 2012

Iraunkortasunaren Bikaintasun Klubak laneko gosaria egin du gaur Madrilgo Volkswagen Taldeko egoitzan, eta bertan parte hartu dute Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak eta Klubeko bazkide diren enpresetako lehen exekutiboek.

Bilkuran Nafarroako Gobernua Foru Komunitateko garapen ekonomiko iraunkorra sustatzeko egiten ari diren jarduera nagusiak aztertu dira, bai eta berriki abian jarri den RSC 2012 - 2016 plana (Gizarte Erantzukizun Korporatiboa 2012-2016) Suspertu, Sustatu eta Bultzatzeko II. Programa Orokorrak jasotzen dituen jarduera nahiz neurriak ere; azken programa horren helburua lehiakortasuna areagotzea da Administrazioan eta sozietate publikoetan, enpresetan, eta, bereziki, eskualdeko enpresa txiki eta ertainetan.

Barcina Lehendakariak Nafarroan duela hiru urtetatik egindako lana azpimarratu du Foru Komunitatean garapen ekonomiko iraunkorra osatzeko; apustu horrek bultzada publiko eta pribatua du Moderna Planari esker. Plan horrek "Nafarroako Garapen Ekonomikoaren Eredu" berria ezartzen du, ezagutzan oinarrituta dago eta osasunaren ekonomian, ekonomia berdean eta talentuaren ekonomian espezializatuta dago; gainera, Nafarroa Europako lehen 20 eskualderen artean kokatu nahi du biztanle bakoitzeko BPGean.



Barcina Lehendakaria Iraunkortasunaren Bikaintasun Klubeko kideekin.

Nafarroako

Lehendakariak Moderna Plana ekonomia iraunkorra eraikitzeko lankidetzaz publiko-pribaturako adibidetzat jo du, aberastasuna eta enplegua sortzeko gai dena eta jada Nafarroan proiektuak

aurrera egitea dakarrena, haiek guztiak gainera Europako Inbertsioen Bankuak abalaturakoak. Banku horrek bere babes eman dio ekoizpeneko eredu-aldaketa horren aldeko apustuari enpresa-proiektuak finantzatzeko 250 milioi euroko kreditu-lerro batekin.



Barcina Lehendakaria Iraunkortasunaren Bikaintasun Klubeko kideekin hitz egiten.

Alde horretatik, gainera, Barcinak Foru Gobernuak Nafarroako enpresen eskutik aurrera eramandako ekimenaren berri eman du, krisialdi ekonomikoa gainditzeko ekimenak nahiz ahaleginak batzeko xedearekin. "Bueltan eman nahi diogu" izeneko ekimen horrekin (www.queremosdarlelavuelta.com) lehen astean 300 enpresa handi eta txiki, langile eta profesional autonomoek bat egitea lortu da, eta abian jartzen ari diren ekimenak sarean partekatzen ari dira krisiari aurre egiteko eta Nafarroan ekonomiaren eta enpleguaren susperraldia etortzeko oinarriak jartzeko.

Iraunkortasunaren Bikaintasun Klubari buruz

Iraunkortasunaren Bikaintasun Kluba hogeita bi konpainia handiko talde batek osatutako enpresa-erakunde bat da, hazkunde iraunkorraren aldeko apustua egiten dute ikuspegi ekonomiko, sozial eta ingurumen-ikuspegitik, eta erreferentziako foroa Espainian sortu da jardunbide arduratsuen dibulgazioari eta sustapenari dagokienez.

Iraunkortasunaren Bikaintasun Klubeko bazkideak lehen-mailako konpainiak dira, eta haien fakturazioa Espainiako BPGaren laurden baten baliokidea da. Enpresa horiek honako hauek dira: ABB España, Adecco España, AENA, BASF Española, BSH Electrodomésticos España, CEMEX España, Endesa, Ericsson España, FCC, Holcim España, Grupo Mahou San Miguel, Iberdrola, ISS Facility Services, MONDRAGON, MRW, NH Hoteles, Orange España, Red Eléctrica de España, Renfe, SEAT eta Vodafone España.